

Kanpion jaunaren iritzia. Au batzaraldira ezin etorri dalako, onen izenean ere egiten du aitoritza auxe. Euskaltzaindiak gogoz entzun ditu Aita Intzaren itzak ta Ikastetxeko zuzendari jaunari zorionik beroenak bidaliko dizkio.

Beste gai batzuek urengorako laga dira ta otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren bein-beineko etxean, 1923'ko Garagañila'ren 27'an.

Aipatu diran lengo batzaraldiko euskaltzain berak daude Azkue maipuru dutelarik.

1. Ezkutitzak irakurri dira ta lan auxe ta beste batzuek egin da, Donestebe'ko euskalegunen egita-mua, orainxe bertan, geroko utzi gabe, egitea erabaki da. Asko itzegin ondoren, alaxe eskatzen baidu arlo onek, auxe erabaki da Donestebe'n egitea:

Agoñaren 7'an. a) Goizeko bederatzitan Batzar Nagusia, b) Euskaltzaindiko Zadorlariak itzaldi batez agertuko du Euskaltzaindiaren lana Durango'ko batzar nagusitik onera, c) Abestiak, d) Eguskitza jaunaren itzaldia Elkanoko Lizañagaz, e) Goienetxe jaunak Azpilkuetaz. *Añatsalderako:* a) Abestiak, b) Irigarai jaunaren itzaldia Lakoizketaz, c) Intzagarai-ren olerkia Oñeagaz, d) Pilota jokaketa. *Agoñaren 8'an.* a) Aita Azpiazu'ren itzaldia, Leizako orain eun urteko euskeraz, b) Iruña'ko euskal-ikastoletako emakume gazte baten itzalditxoa, c) Ume arteko sari banaketa. *Añatsaldean:* a) Aita Mendiburuz kaputxino dan Aita Andres Lizartza'ren itzaldia, b) Katalin Eleizegi eus-

kal-emakume argiaren itzaldia ta c) euskal-antzo-
kirako idatzi dan *Alaibide*-ren agerketa. *Agoñaren*
9'an. *Goizean*: Meza Nagusi eder abestua; aita
Intzak itzaldia. Ondoren Donestebeko Alkate jaunak
sortuko du aureskua. *Añatsaldean*: Pilota-jokaketa.
Gero Jose Zalba jaunaren itzaldia *Agote-tzaz* ta Eus-
kaltzainburuak emango die jai abei beren amaya
itzaldi bero batez. *Gernikako* abestu.

Auxe da batzaraldi ontan onetsi dan Donestebe'ko
euskal-jaien egitamua. Ta beste gairik izan ez da,
otoitzez amaitu da batzaraldi au.
